



**JUNTA DEL VALLE DE AEZKOA  
AEZKOAKO BATZARRE NAGUSIA**

31671 ARIBE (Navarra) • CIF: P3175000C  
Tel: 948 76 43 75  
junta@aezkoa.net  
valledeaezkoa@gmail.com  
www.aezkoa.org

Ariben, 2022ko abuztuaren 4an, arratsaldeko ordu batean, Aezkoako Batzarre Nagusiak, bilkura arrunta egin zuen, lehenengo deialdian, legez deituta, haren presidente titularrak zuzenduta eta jarraian adierazten diren kideak bertan zirela, eguneko honako gai hauek aztertzeko:

## **BILDUTAKOAK**

**Batzarreburu jauna:** Karlos Bueno Reka

**Batzarrekide jaun/anderak:** Martinez Juango, Ainhoa – Merino Iriarte, Juan Esteban – Santomá Vicens, Gonzalo – Zabalza Barberena, Izaskun.

## **LEHENENGOA.- AURREKO BILKUREN AKTAK ONETSI**

Eragozpenik agertu ez denez, onetsi da ekainaren 2an egindako bilkuraren akta.

## **BIGARRENA.- AURREKONTU ALDAKETA – MUGAZ GAINDIKO IZAEREN KULTUR JARDUERAK**

Batzarre Nagusi honi jakinarazi zaió mugaz gaindiko kultura-proiektu bat egiteko bi diru-laguntza eman zaizkiola. Alde batetik, POCTEFA mikroproiektuen deialdira aurkeztu zen «Harreman eta konexioen lurraldea» izeneko proiektua, non egin beharreko jarduerak gisa honako jarduerak sartu ziren (2022 eta 2023 urteak): mugaz gaindiko gizarte-jarduerak sustatzea, trukeen eta herritarren mugikortasun handiagoaren bidez (bi ekitaldi); ekimenak garatzea lurraldeetako profesionalen bitartez (ibiltaritza-eskaintza); eta komunikazio ludikoa zabaltzea (lehiaketak). Ekintzen aurrekontua, guztira, 25.000,00 €-koa da lau bailaretarako, eta Aezkoako Batzarre Nagusiarentzat, hain zuzen ere, guztira 5.080,00 €-koa. Diru-laguntza eman izanaren jakinarazpen ofiziala jaso da, hau da, bi urtekoen gastuen %100, eta 2.032,00 € aurreratu dira azken justifikazioaren kontura. Bestalde, proiektu hau (aurrekontu zabalago batekin) Kultura eta Kirol Departamentuari aurkeztu zitzaion, mugaz gaindiko kultur proiektuetarako diru-laguntzen deialdiaren barruan (Euroeskualdea); 4.425,00 €-ko laguntza eman izanaren jakinarazpena jaso da (aurrikusitako aurrekontua, guztira, 8.175,00 €-koa da).

2022rako aurrekontua gauzatzeko 13. oinarrian aurreikusitakoaren arabera, zergaren menpe ez dauden honako diru-sarrera hauek kreditua sortu ahal izaneren dute gastuen egoera-orrian: pertsona fisikoek edo juridikoek tokiko eskumeneko gastuak finantzatzeko ekarpenak edo ekarpen-konpromiso irmoak. Horretarako, beharrezkoa izaneren da dirua sartu izana edo, bestela, espedientean ekarpena egiteko erabaki formala hartzea.

Espedientean kobratu izanaren edo ordaintzeko konpromisoaren irmotasunaren justifikazioa jasoko da, baita handituko den aurrekontu-aplikazioa ere.

Osoko Bilkurak onartu beharko du, eta, indarrean sartzeko, Osoko Bilkuraren erabakia nahikoa izanen da.

Aurrekoa ikusita, Osoko Bilkurak erabaki du 33400-2260901 aurrekontu lerroa, Batzarre Nagusiko Kultur Jarduerak izenekoa, handitzea (1.500,00 €koa, gaur egun), guztira 8.175,00 €-ra arte (6.675,00 € gehiago dira).

Gastu gehigarri horiek finantzatzeko honako diru-sarrerak aurrikusi dira aurrekontuan:

4971501- POCTEFA mikroproiektuentzako diru-laguntza: 2.250,00 €

4508012- Mugaz gaindiko kultur jarduerentzako diru-laguntza: 4.425,00 €

#### **HIRUGARRENA.- AUTOKARABANENTZAKO ZERBITZU GUNEA EGOKITZEKO LANEN KONTRATAZIOA.**

Denbora luzea igaro da proiektu hau gauzatzeko ingurumen-baimena eskatu zenetik (2021eko maiatzean), eta, gainera, gaiak hainbat gorabehera izan ditu ere. Baina, azkenik, Lurraldearen Antolaketako Departamentuak auto-karabanentzako zerbitzu-eremua sortzeko proiektuari buruz eskatutako aldaketa egin da. Aldaketa hobi septikoa arazteko sistema aldatzean zetzan, Arrazolako komunetan dagoenaren antzeko bat jartzeko. Hala eta guztiz ere, behin betiko baimena ez da oraindik iritsi, baina baieztatu dute sinatzeke dagoela, baina proiektua baimendua dagoela, aldaketa hori barne. Horregatik guztiagatik, eta kontuan hartuta urteko zein garaietan gauden, beharrezkoa da obren lizitazioa egitea, 2022rako Pirinioetako planari lotutako inbertsioetarako diru-laguntzetan ezarritako entrega-epea bete ahal izateko.

Batzarre Nagusiko Osoko Bilkurak erabaki du Arrazolan (Orbaizeta) auto-karabanentzako eta kanpatzeko zerbitzu-eremua egokitzea izeneko proiektuaren obren exekuzioa kontratatzea. Proiektua IGER Arquitecturak idatzitakoa da, eta hura aldatzeko eranskinean arazketa-sistema berri bat jartzea jasota dago.

Kontratazioa, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legean xedatutakoaren arabera esleituko da, Europako atalasetik beherako prozedura irekiaren bidez, izapidetze arruntaren bidez, eta Nafarroako Lizitazio Plataformaren bidez – PLENA-.

Obra-kontratuaren balio zenbatetsia 137.632,97 €-koa da -ehun eta hogeita hamazazpi mila seiehun eta hogeita hamabi euro eta laurogeita hamazazpi zentimo-, BEZik gabe -137.632,97 € (166.535,89 euro, BEZa barne), 2022ko Aurrekontu Orokor Bakarreko 43200-6220007 kontu-lerroaren kontura finantzatuko da kontratu hau, 175.000 euroko kontsignazioarekin.

Kontratazioa onartzen den baldintza pleguaren arabera eginen da, eta akta honi erantsita geldituko da.

### **LAUGARRENA- AÑO 2021EKO KONTUAK**

2021eko ekitaldiari dagokion kontuen behin betiko espedientea berrikusi da, eta urteko partidei eta horien emaitzei buruzko azalpenak eman dira. Batzarre Nagusiak urtarrilaren 21ean egindako batzarrean aurkeztu zeun behin-behineko likidazioa, 2022. urteko aurrekontuarekin batera.

Batzarre Nagusiak kontuak ireki zituen garaitik hainbat ordinal adierazita ditu kontabilitatean, gaur egun kontabilitate-mugimendurik ez dutenak. Horrekin lotuta, erabaki da erakunde bakoitzean kontsultatzea zeri dagozkien numerazio horiek (kasu batzuetan hasierako ekarpen gisa agertzen dira); eta berrikusi ondoren (ekitaldi honen barruan egin behar da), gaur egungo daturik ez duten horien kasuan, hasierako izakinak aldatuko dira. Kasu horietarako 4, 5 eta 6 ordinalak erabiliko dira.

Era berean, zenbait diru kopuru daude hainbat fidantzekin lotutakoak. Ehiza-postuen esleipenean jarraitzeko konpromisoei, azkenean gauzatu ez zirenak, dagozkie. Fidantza horiek bere garaian kitatu behar ziren eta horien zenbatekoa isunengatiko diru-sarrerei egotzi. Numerazio hauek dute: 20103000130, 20113000068m 20123000121, 20153000124 eta 20153000122. Bada, baliogabetu egiten dira, bere garaian kontabilizatu ez zirelako eta itzultzea bidezkoa ez delako. Era berean, baliogabetu dira 14 urtetik gorako antzinatasun-fidantzak ere, eta ezin izan da jakin zergatik ez zuten bere garaian itzultzea eskatu. Bada, 20153000193 eta 20153000112 zenbakietako fidantzak horien titularrek ordaintzeke dituzten zenbatekoen kontra egotzi dira, dagokion formalizazio-idazpenaren bidez.

Kontuen itxiera aztertu ondoren, Batzarre Nagusiaren Osoko Bilkurak hura onartzea erabaki zuen, eta, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legearen 305. artikuluan xedatutakoa betez, iragarki-oholean eta erakunde honen web-orri instituzionalean jarri zen jendaurrean, iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik hamabost eguneko epean, interesdun guztiek aztertu eta erreklamazio-kontuak egin zituzten. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, kontuak behin betiko onartutzat hartuko dira.

Hona hemen kontuen laburpena:

2020. urteko laburpena honako hau da:

Kap	Izena	Aurrikuspena	Onartutako betebeharrak	%
1	Langile gastuak	403.750,00	289.447,13	71,69
2	Ondasun arruntak eta zerbitzuak	220.100,00	126.809,34	57,61
3	Finantza gastuak	0,00	0,00	0,00
4	Transferentzia arruntak	52.900,00	45.204,79	85,45

6	Inbertsio errealak	410.785,00	39.514,35	9,62
7	Kapital transferentziak	0,00	0,00	0,00
8	Finantza aktiboak	0,00	0,00	0,00
9	Finantza pasiboak	0,00	0,00	0,00
<b>GUZTIRA</b>		<b>1.087.535,00</b>	<b>500.975,61</b>	<b>46,07</b>

#### Diru-sarreren kapitulua

Kap	Izena	Aurrikuspena	Aitortutako eskubideak	%
1	Zerga zuzenak	0,00	0,00	0,00
2	Zeharkako zergak	0,00	0,00	0,00
3	Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrerak.	210.800,00	89.609,07	42,51
4	Transferentzia arruntak	122.850,00	123.606,43	100,62
5	Ondare/komunalengatiko diru-sarrerak	411.790,00	360.079,63	87,44
6	Inbertsio errealen salmenta	0,00	0,00	0,00
7	Transferentziak/bestelako kapital diru-sarrerak	342.095,00	20.415,35	5,97
8	Finantza aktiboak	0,00	0,00	0,00
9	Finantza pasiboak	0,00	0,00	0,00
<b>GUZTIRA</b>		<b>1.087.535,00</b>	<b>593.710,48</b>	<b>54,59</b>

#### Diruzaintzako laburpena:

<b>Kobratutakoak</b>		<b>Ordaindutakoak</b>	
Aurrekontu arrunta	457.373,02	Aurrekontu arrunta	446.057,32
Itxitako aurrekontuak	98.621,71	Itxitako aurrekontuak	18.849,04
Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	18.315,55	Aurrekontuz kanpoko gastuak	56.905,30
Barne mugimenduak	39.100,00	Barne mugimenduak	39.100,00
<b>KOBRATUTAKOA, GUZTIRA</b>	<b>613.410,93</b>	<b>ORDAINDUTAKOA, GUZTIRA</b>	<b>560.911,66</b>
Hasierako izakinak	100.221,78	Bukaerako izakinak	152.720,40

2021eko ekitaldiko aurrekontu-emaitza doitua 51.201,84 €-koa da, eta aurreko ekitaldikoa, aldiz, negatiboa izan zen: -37.483,19 €.

Diruzaintzako gerakinaren egoera honako hau da:

- Atxikitako finantzaketa duten gastuengatiko diruzaintzako gerakina: 0,00 €
- Atxikitako baliabideengatiko diruzaintzako gerakina: 75.229,89 €
- Gastu orokorregatiko diruzaintzako gerakina: 164.904,65 €

#### **BOSGARRENA.- HAINBAT**

##### **- Udalbiltza/Kulturbiltzaren proposamena**

Udalbiltzak Kulturbiltzaren bidez (2. edizioa da) egiten duen kultura garatzeko eta sustatzeko proposamenaren berri eman da. Udalekin bi urteko hitzarmena sinatzea proposatu da. Asmoa da artista bat gunera mugitzea sorkuntza bat egiteko, edozein kultur esparru har dezakeena:

film laburra, komikia, antzerkia. Edizioan parte hartu duten udal guztien artean zikloak egiten dira, sorkuntzak toki entitateen artean mugi daitezten. Konpromiso ekonomikoa erakunde bakar batena izan daiteke, edo elkartutako hainbatena. Adibidez, Aezkoa-Agoitzen kasuan, bi urterako proiektu osoa 16.125 eurokoa da; horietatik 7.325 Aezkoari dagozkio eta 8.800 Agoitzi.

Batzordeak zein Batzarre Nagusiak uste dute une honetan ezin dela horrelako proiekturik egin, interesgarria izan daitekeelakoan badaude ere; beraz, alternatiba gisa planteatu da Pirinioetako Mahaira bideratzea, hark azter dezan, edo, 2023 eta 2024. urteetako aurrekontua prestatzen den garaian aztertzea.

#### **- Pirinioetako Mahaia**

Batzarreburu jaunak jakinarazi du Pirinioetako Mahaiburuak, Zaraitzuko Ibaixaren Batzordekide Ana Sagardoyk, kide izateari utzi diola, eta, beraz, ezin duela bertako buru izaten jarraitu; Mabel Cañada andrea izendatu dute buru berri.

#### **- Ehiza**

Gaur egun oilagorra ehizatzeke 19 txarteletatik 18 salduta daude, eta azken txartelaren erosketa baieztatzeke dauka eskatzaile batek.

#### **- Partaidetza prozesua**

Aezkoa-2030 proiektuaren garapenak jarraitzen du. Artelani esleitutako ibarraren parte-hartze prozesuaren barnean, orain herriz herriko deialdiak egiten ari dira.

#### **- Langilearen izendapena**

Batzarre Nagusiak izendatutako epaimahaiak administrari laguntzaile lanposturako lanaldi-erdiko pertsona bat hautatu ondoren, Batzarreburuak ebazpena eman zuen. Haren bidez Mainer Juanikotena Santesteban andreari, hautaketa-probetan hobekien sailkatutako hautagairi, jakinarazi zion lanposturako hautatua izan zela eta astebeteko epea zuela lanpostuan hasteko, deialdiaren oinarrietan ezarritakoaren arabera. Uztailaren 18an hasi ziren. Batzarre Nagusia jakinaren gainean dago.

#### **- Kultur Ola eraikineko lanak**

Batzarre Nagusia berriz jarri da harremanetan Beorlegui arkitekto jaunarekin, obraren amaierako dokumentazioa arinago eman dezan, eraikinaren irekiera izapidetu ahal izateko. Era berean, igogailuaren atetarako trokelgintza-lanak enkargatu dira; eta errotulazioak jartzea falta da.

## **SEIGARRENA.- GALDERAK ETA ESKEAK**

Ez da galde-eskerik egin.

Eta aztertzeko gai gehiagorik ez baitago, bilkura bukatutzat eman da goian adierazitako eguneko 16:00etan. Esandakoa jasotzeko akta hau luzatu da, eta, nik, idazkariak, egiaztatzen dut.